

2025eko UDAL AURREKONTUAK

Ezinbesteko ariketa dira udal batentzat ekinaldi bateko aurrekontuak. Ez da dokumentu soil bat; ez da aurre-ikusten diren sarrera eta gastuen arteko oreka solik. Askoz gehiago da: udal horrek urte osoa batean bideratu asmo dituen egitasmoen eta bere gobernuaren izpiritua jasotzen duen dokumentua ere bada.

2025eko aurrekontuetan aipatu izpiritu horren gidalerroak jaso dira. Ezin dugu ahaztu krisi egoera anizkoitz batean bizi garela, maila orokorrean hainbat eskubideen erregresio egoeran sartu garela eta jendartearen pobretze orokortu giro batean ere bizi garela.

Horiez jakitun, argi dugu gure norabidea: gure herriaren eraikuntzan jarraitu behar dugu (ez soilik aspektu urbanistikoetan, baita bestelako aspektu batzuetan ere), eta, era berean, gure herritarren beharrei erantzuteko eta euren bizitzak hobetzeko neurriak hartu behar ditugu.

Gure eguneroko beharrei modu komunitarioan egin nahi diogu aurre; hala ulertzen dugu gure eginbeharra: tokiko beharrianak tokiko baliabideekin asetzeko aukerak aztertuz, eta ezin den kasuetan, horretarako modu egokienak bilatuz.

Aurrekontu hauek bide horretan osatu dira, lau ildo edo eremutan banatu ditugularik gure proposamen nagusiak:

ILDOAK

1. HERRITARREN BIZITZAK HOBETU

Hauxe da helburu guztietan nagusia eta lehentasunezkoena. Herritarren bizitzak hobetzera etorri gara, badugu zeregina horretan. Herritar asko dira oinarrizko beharrianak asetzeko ere zailtasunak dituztenak. Beraz, ezinbestekoa dugu zerbitzu publiko duinak eraiki eta sendotu, eta oinarrizko eskubide sozialetan aurrera egitea.

Askotarikoak dira andoaindarren kezak, baina oro har multzo hauetan jasotzen direla uste dugu:

1.1 Etxebizitza

Hauxe da andoaindarren artean, kezka nagusia ez bada, nagusienetarikoa. Prisma askotatik aztertu, landu edo begira daiteke etxebizitzaren problematikari, eta eskuz esku Udalaren eskumena ez bada ere, badira Udaletik bideratzea proposatuko diren zenbait egitasmo:

-Udalbatzak gehiengoz hartutako erabakiari jarraituz, **Andoain eremu tentsionatu izendatzeko urratsak ematen jarraituko dugu**, Eusko Jaurlaritzak hala kontsidera

dezan eta etxebizitza legeak ezartzen dituen aukerak praktikara eramateko moduan izan gaitzen.

-Horretarako, **Etxebizitza egoeraren diagnostikoa** egingo da.

-**Etxebizitza Bulegoa** zabaltzeko urratsak emango ditu Udalak, etxebizitzaren problematikaren aurrean aurkitzen diren herritarrei lagundu asmoz. Etxejabeentzat, etxe bila dabilzanentzat, etxebizitza ordaintzeko laguntza behar dutenentzat... guztiei zerbitzua eskaintzea izango da helburua.

-Udalarenak diren eta **larrialdi egoeretara bideratzen diren etxebizitzaren egokitzapena** egiten jarraituko du Udalak, horiek gero alokairu sozialera bideratzeko asmoz.

-Herriko **gazteek etxebizitza alokairuan eskuratzeko diru-laguntzak** bideratuko dira.

-**Etxebizitza tutelatuen sustapena**, gaur egun Udalaren eskumenekoak diren eta 60 urtetik gorako heldu autonomoentzat bideratzen direnak.

1.2 Zerbitzu publikoen sendotzea

Ezinbestean, herritarren beharrak asetzea bada gure egitekorik nagusiena, ezinbestekoak ditugu zerbitzu publiko sendoak.

-**Etxez etxeko zerbitzuaren indartzea**. Jakina da geroz eta jendarte zaharkituagoa dugula, eta geroz eta gehiago direla horrelako zerbitzuak aintzatesten dituzten herritarrak. Beharrezkoa da kalitatezko zaintza zerbitzuak eskaintzea, eta horren inguruko hausnarketa sakon batean murgilduko da Andoaingo Udala. Edonola, hori gauzatu bitartean, zerbitzu hau bideratzeko kontratua berri eta diru inbertsio handiago egingo da.

-**Kiroldegiaren berritzea eta instalakuntza berriak**. Badira honezkero 32 urte Allurralde kiroldegia eraiki zela, eta urteen poderioz, zaharkituz joan den instalakuntza da. Horregatik, diru kantitate garrantzitsua bideratuko da egungo espazioak berritzeko. Halaber, azken hilabeteetan urrats garrantzitsuak eman dira Kiroldegiaren instalakuntza berrien proiektuan. Herriko eragile, klub, elkarte eta taldeen parte-hartzearen eta euren ekarpenak entzunda, aurre-ikusten da urte hasierarekin batera Udalak eskura izatea proiektua, eta horrela, pauso berriak eman ahal izatea eraikuntza-lanak gauzaten hasi ahal izateko. Aurre-ikusten dira, besteak beste, bigarren pista estaliaren eraikuntza, padel pista...

Halaber, zerbitzua eskaintzen duen kontratu esleipen berria jarriko da martxan, eta bertan, langileen lan baldintzak hobetzeko neurriak hartuko dira.

-Udalak, beste erakunde publiko batzuekin elkarlanean, kontratazioak egiten jarraituko du **Enplegu planen** barruan. Horien baitan koka daiteke, esaterako, Tokiko Enplegu Ekintzen kontratazioak edo Administrazioan Lehen Aukera bezalako programak.

-**Udal Ludotekaren zabalpena**. Hainbat urte dira Udalak herriko txikienei eskaintako zerbitzu hau eskaintzen duela. Zerbitzu honek 2025etik aurrera instalazio berriak izango

ditu, Belabi kalean kokatu direnak. Gainera, zerbitzua egungo beharretara egokituko da eta giza baliabide gehiago txertatu.

-Udal Liburutegi berria. Jakitun gara Udal liburutegiak gaur gaurkoz eskaintzen duen espazioa txiki geratu dela andoaindarrek dituzten beharretarako. Hori dela eta, hori aterabidea emateko lanean dihardu Udalak azken agintaldietan. 2025ean auzi honi behin-betiko bultzada emango zaio.

-Emakumeen etxea. Agintaldiko erronken artean jaso genuen proiektuaren lehen urratsak emango dira urte honetan. Batetik, prozesua bideratzen lagunduko duen kontratazioa egiteko diru partida gorde da aurrekontuetan; bestetik, Emakumeen Etxearen behin betiko espazioa egokitu bitartean, tarteko espazioa sortzeko lehen urratsak emango dira, prozesuaren akuilu izan asmoz.

-Indarkeria matxistaren atentzio eta erreparazio neurriak sendotu. Azken urteetan lantzen ari den eremua den arren, 2025ean bultzada handiagoa emango zaio alor honi. Besteak beste, indarkeria matxista jasan duten Andoaingo emakumeen autonomia sustatzeko bideratua dagoen Taupada zerbitzua indartu egingo da, aurrekontua %33 igoz.

-Hileta zibilak. Orain dela zazpi urte onartu zen gure gertukoei azken agurra emateko eredu zibila sustatzen duen ordenantza; urte honetan, aukera hau ezagutzera emateko kanpaina bideratuko da.

1.3 Gizarte babesa

Ezin da ukatu azken urteetan desberdintasun sozialak neurrigabe areagotu direla. Krisialdi bat beste batekin kateatuz ari gara azken boladan, eta azken hilabeteetako prezioen garestitzeak egoera hori areagotu besterik ez du egin. Pobrezian edo horren mugan diren herritarren tasa geroz eta handiagoa da, eta oinarritzko beharrak asetzeko baliabideak geroz eta urriagoak.

Egoera honek kohesio soziala apurtzea ere eragiten du, neurri haundi batean. Horregatik, babes kolektiboko neurriak jarriko dira mahai-gaiean:

-Ordenantza fiskaletan progresibitatea. Ahalmen ekonomikoaren arabera ekarpena egitearen baieztapena geure egiten dugu; sistema iraunkor, justu eta demokratikoa baten bidean, zerga sistema progresibo bat ezartzea ezinbesteko deritzogu, eta horregatik, 2026ko ordenantza fiskalak horren bidean aldatzeko lan-taldea jarriko dugu martxan.

-AGIS laguntzen ordenantzaren eguneratzea. Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko udal-laguntzak dira AGIS delakoak (Eusko Jaurlaritzak bideratzen dituen AES laguntzen osagarri direnak). Laguntza horien irizpideak biltzen dituen ordenantza bat du Udalak, baina beharrezkoa da egungo bizi baldintzetara egokitzea, modu horretara hartzaila potentzialak izan daitekeen pertsonen kopurua emendatuz.

*Zaintza

Biztanleriaren zahartzeak modu bizkorrean areagotu du zaintzen premia. Jakin badakigu honen ardura eta, kasu askotan, zama emakumeengan erortzen dela, gainera. Sare komunitarioak ahulduz joan dira gainera, eta zaintzen sistema arlo pribaturantz

norabidetu da azken urteetan. Horren aurrean, gure adinekoak zainduko dituen zaintza sistema komunitario baterantz urratsak ematen hasia proposatzen dugu.

-Zaintza Planaren garapena. Udaleko planean jasota dauden neurriak praktikara eramateko momentua heldu da. Horien artean, 2025 honetan eremu hauek landu nahiko genituzke:

-Hautatu gabeko bakardadearen akonpainamendua. Gora doa nabarmen adinean gora doazenen ehunekoak Andoainen, eta areagotuz joango da datozen urteetan. Errealitate honi begira gaude, ez baita makala: familia sarerik ez, aisialdirik ez, eguneroko zaintzarako zailtasunak... Horregatik, bakardade ez-hautatuari aurre egiteko sare publiko-komunitarioa eratu nahi dugu, belaunaldi-arteak izango dena. Egoeraren diagnostikoa osatuko da lehenbizi, eta hezitzaileen kontratazioa ondoren. Proiektu hau bideratzeko, bere momentuan Fini Rubiok Andoaingo herriari dohaintza emandako herentzia bideratuko da; bere dohaintza bakardade egoeran aurkitzen diren hirugarren adineko pertsonentzat bideratzeko baldintza jarri zuen Finik, bere nahia bideratuko da proiektu hau garatuta.

-Akonpainamendu soziala. Bakardade egoeran dauden pertsonak, ordea, ez dira soilik hirugarren adinekoak. Badira gazteagoak izanik ere egoera horretan aurkitzen direnak. Bada, laguntza sozial hori bideratzeko proiektua garatuko da.

-LGTBI+ pertsonen bizi kalitatearen inguruko diagnostikoa. Beharrezkoa ikusten dugu kolektiboari begira jarri eta gure herrian bizi duten errealitatea ezagutzeko. Andoainen ez da sekula halako lanketarik bideratu; azterketa honetan ateratako datuek erakutsi ditugu zernolako lanketa bideratu dezakegun, pertsona guztien eskubideak errespetatzeko bidean.

-Haur eta Nerabeen Foroa. Badira zenbait urte martxan dela foro hau, baina urte honetan bultzada eman nahiko genioke. Beharrezkoa ikusten dugu gure etorkizuna izango direnen ahotsa gaurdanik entzutea. Horregatik, tokiko planaren eta ikatsetxeetako planen dinamizaziorako kontratazioa bideratuko da.

-Espazioen irisgarritasuna. Irisgarritasuna, eskubide unibertsal bat izateaz gain, modua bilatu behar dugu espazio guztiak pertsona guztientzat eskuragarriak izan daitezen. Andoainen badugu problematika honek bereziki ukitzen duen kolektibo zabal bat, eta zorionez, Udalak eurekin elkarlanean aritzeko aukera du. Bide horretan, hainbat proiektu bideratuko dira 2025ean; horien artean aipagarrienak:

-Gabriel Aresti kalearen egokitzapena. Bertan bizi diren auzotarren aspaldiko aldarria da ezinbestekoa dela kalearen saneamendua eta irisgarritasun egokitzapena egitea. Bada, horri heltzeko proiektua aurrera eramateko moduan izango da Udala 2025 honetan. Hiru fasetan gauzatuko den proiektua izango da, agintaldi honetan amaitzea espero dena.

-Hiribus geltokien egokitzapena. Autobus zerbitzua berritu da pasa den urte honetan, eta orain, geltoki guztiak irisgarriak izateko lanak egingo dira.

-Alejandro Calonge auzoaren eraberritzea. Doktor Huizi kalean egin den bezala, auzo honetan ere zenbait lantxo eramango dira aurrera, irisgarritasuna izanik helburu nagusia.

*Aniztasuna

Euskal Herria bezala, Andoain ere geroz eta anitzagoa bihurtzen ari da. Oso garrantzitsua izan zen 50-60.hamarkadan Andoainek jasotako mugimendu migratorioa; horren ondorioz, handiak dira Galizia, Extremadura edo Andaluziatik, besteak beste, gurera bizitzera etorritako komunitateak. Egia esatera, mugimendu migratorioek ez dute etenik izan ordutik, eta askotariko nazio eta etnietako kideak etorri dira azken hamarkadetan gurera bizitzera.

Argi dugu Andoain Andoainen bizi diren guzti-guztiak osatzen dutela. Guztiok gara andoainarrak, guztiok eraikitzen dugu gure herria egunez egun, eta guztiok gara eskubide guztien jabe. Aniztasunaren definizio zintzoena aberastasuna dela iritzita, ondorengo neurriak eramango ditugu aurrera:

-Kultur aniztasunerako Ekintza plana garatzen jarraitu. 2022an onartu zen, 2026 urtera bitarteko iraupenarekin. Ildo ezberdineko lanketa proposamen zen bertan, eta horien garapenarekin jarraituko da. Edonola, plan berria adosteko oinarriak ere finkatzen hasiko dira.

-Harrera Integralerako Zerbitzua. Gure udalerrira etorri berriak direnentzat harrera sistema osoa garatu nahi dugu, herriko bizimoduan modu inklusiboan parte har dezaten. Horretarako sortuko da zerbitzu hau, ongietorria eman eta euren parte-hartzea sustatzeko.

*Aberastasunaren birbanaketa

Esan bezala, eztabaida puntaletan erori gabe, zerga-sistema goitik-behera eta zeharlerroan aldatzea proposatuko dugu, zerga-ereduaren inguruko eztabaida sozial eta politikoa bideratuz. Urte luzez indarrean izan den fiskalitate eredia irauli egin behar dela uste dugu, ez delako aurrerakoia, ez delako justua.

-Ordenantza fiskalen eztabaida: zerga sistema progresiboa (1.3 puntuan azalduta).

-Tasa berdeak. Azterketa horretan, eta ingurumena babesteko irizpidea lehentasun gisa hartuta, gure herrian tasa berdeak ezartzeko aukera ere aztertuko da.

-Udalak bideratzen dituen **pleguetako klausula administratiboetan** ziurtatuko dugu langileei bideratzen zaizkien soldatak Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak aldarrikatzen duen 1.400 euroko Lanbidearteko Gutxieneko Soldata bermatuko duela.

2. ERALDAKETA EKOSOZIALA eta ELIKADURA BURUJABETZA

Egunerokoan ikusten ditugu klima aldaketaren eraginak gurean. Jakin badakigu klima larrialdiari aurre egiteko har litezkeen neurri politikoen eremua oso zabala dela, baina gehiago itxaron gabe, beharrezkoa dugu Udaletik ere politika horiei eustea.

Ez dago misterio handirik; jakinak dira eragin esparruak zeintzuk izan daitezkeen:

-Energia kontsumoaren murriztea

-Erregai fosilen kontsumoa mugatzea

-Energia berriztagarrien sustapena

Hala, ondorengo neurriak bideratzea proposatu dugu:

-Langile baten kontratazioa: Eraldaketa ekosozialaren bidean, herrian indarrean jar daitezkeen neurrien inguruko hausnarketa egingo duen langile bat kontratatuko da. Era berean, Bertxingo zentral hidroelektrikoaren inguruko azterketa ere egingo du, honen eskaintzen dituen balizko neurriak mahai-gaineratzeko.

-Baratza komunitarioak. Agintaldiko helburua da herritarrek aisialdirako gunek bat izatea baratze modura erabiltzeko: nekazaritza ekologikoa eta tokian bertakoa garatzea ahalbidetuz gain, herritar ezberdinen eta belaunaldi ezberdinen arteko topalkeu izango litzateke, giza harremanak garatu eta ezagutzak partekatuz aukera emanez. 2025 honetan horren bidean lehen urratsak eman nahi dira.

-Ibilgailu elektrikoak. Bide hau hartuta du Udalak azken urteetan, baina berritzeko dagoen flotari begira, ibilgailu elektrikoaren eskuratzeko izango da lehentasuna.

-Ibilgailu elektrikoaren karga puntu publikoak. Herriko ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak ezartzeko puntuen azterketa egingo da.

-Jantoki publikotan tokiko produktuak: Galardi haurreskolan egiten den bezala, jantoki publikoetan (ikastetxeak, adinekoen egoitzak...) tokiko produktuak eskaini daitezkeen hitzarmenak bideratuko dira.

-Janari soberakinen makinak. Herriko jantoki publikoetan soberakinak jasoko dituen makina ezarriko da herriko puntu egokiren batean, beharra duenak janari hori doan jasoz dezan.

-Espazio berdeen sorrera. Klima aldaketari aurre egiteko neurri gisa, herrian zehar itzalgune berrien sorrera sustatuko da. Miranda pasealekuan, esaterako. Martxan jartzen diren lan edo obra berrietan ere, kontuan hartuko da itzalguneen eraikuntza.

-Tokiko produktuak ekitaldi publikoetan. Udalean aurrera eramaten diren egitasmo, ekitaldi, mokaduetan... tokiko produktuak eskaintzeko hitzarmena sinatuko da tokiko ekoizleekin.

-Birziklapen –tasa areagotu. Pasa dira urte batzuk hondakinak biltzeko egungo sistema martxan jarri zenetik, eta ezinbestekoa dugu urrats berriak ematen jarraitzea birziklapen tasak areagotuz joan daitezkeen. Ondorengo neurriak hartuko dira urte honetan:

-Errefusaren edukiontzia astean bi egunetan zabalduko da

-Gaikako bilketa sistema aplikatuko zaie sortzaile bereziei

3. ANDOAIN, HERRI BIZIA

Andoaindarrok osatzen dugu Andoain, bertan bizi garen herrikide guztiek. Bertako kulturatik edaten dugu, bertako kultura bizi dugu, eta horrek egiten du, gauza askoren artean, gure herria den modukoa izatea.

Gainera, euskaldunak gara gehiengo batean; Eustat-eko datuen arabera, 2016an, bi urte edo gehiagoko herritarretatik % 56,33 ziren euskaldunak eta % 17,68 ziren euskaldun hartzaileak. Halaber, Andoaingo bizilagunen % 32ren lehen hizkuntza euskara da eta

beste % 6k euskara eta gaztelania biak ditu lehen hizkuntza. Alabaina, apalagoak dira euskararen erabilera datuak, bai etxean, baita kalean ere.

Horregatik, gure hizkuntza sustatzen jarraitzeko ahaleginean egin nahi dugu indar, ulertuta, kultura dela horretarako bidea ematen digu leiho zabalenetako bat. Hala, ondorengo neurriak proposatzen ditugu, besteak beste:

-Kultur mahaiari bultzada. Askotariko kultur eragile, elkarte eta taldeak ditugu herrian. Beraien mugimenduan datza gure herriaren aberastasuna. Sekulako balorea eta kolorea ematen diote gure herriari, eta zentzu horretan, berariaz euren ahotsa eta iritzia jasoko den markoa edukitzea ezinbestekoa dugu. Ikasturte honetan eman dira bide horretan lehen urratsak, baina ikasturte hau izango da berau sendotzeko ekinaldia.

-Kultur espazioen diagnostikoa. Halaber, kultur eremu asko pilatu ditu Andoaingo herriak azken urteetan, herri osoan zehar zabaltzen direnak. Baina ezin dugu ahaztu erronka potoloak ere badituela, hurrengo urteetan erdietsi beharko direnak. Horiei modu egokienean heltzeko helburuarekin, kultur espazioan diagnostikoa burutuko du Udalak.

-Kultur dinamizatzailearen kontratazioa. Kultura programazioaren dimentsioa handia da gure herrian. Urtez urte sendotzen joan da gainera, kalean nahiz espazio itxietan. Dinamizatzaile baten kontratazioak eremu guztien koordinazioa ahalbidetuko du.

-Euskal instrumentuen sustapena. Udal Musika Eskolako eskaintza zabalari euskal instrumentuen eskaintza gehitzeko intenzioa dugu; urratsez urrats gehituko den eskaintza izango da, eta lehen urratsa txistua izango da. 2025/2026 ikasturtean eskainiko da lehenengoz.

-Eskola kiroleko eskaintza bateratua. Gaztetxoek kirol esparruan barneratzeko lehen atea izan ohi da Eskola Kiroleko eskaintza. Hala, azken urteetan indarrean egon den ereduaren azterketa egitearekin bat, eremuan inplikaturik dauden sektore guztiekin eskaintza bateratu eraberritua osatuko da.

-Euskararen erabileraren sustapena. Orain bi urte atxiki zen Andoaingo herria Euskaraz Barra-Barra egitasmoari; honen zabalkundearekin jarraituko dugu 2025ean ere, ekimenera ahalik eta eragile edota komertzio batu daitezkeen.

-Euskararen presentzia soziala. Euskararen ezagutzatik erabilerara jauzi egiteko helburua lortzeko, askotariko ekimenak sustatuko dira herriko hainbat sektore eta target-etan.

4. GOBERNANTZA KOMUNITARIOA

Gure helburua herri proiektua eraikitzea da, eragileekin batera, andoaindarrekin eskutik helduta, eurak ahaldunduz aukera dugun heinean. Horregatik, ondorengo neurriak proposatuko ditugu.

-Partaidetza ordenantza. Gobernantza komunitarioan sinesten dugu, egunerokoan gauzatuko dena, eta ez lau urtean behin hauteskundeak direnean soilik. Bide horretan urratsak emateko, joko-zelaia zein den eta joko-arauak zeintzuk izango diren zehaztea ezinbesteko dugu. Ordenantza honek markatuko du bidea zein den.

-Herri kontsulten ordenantza. Partaidetza nola egituratuko dugun, hortaz harago, herriko interesekoak izan daitezkeen eta errelebantzia handia eduki dezaketen gaien inguruan herri kontsultak egitea proposatu nahi du Udalak. Hala, galdeketa horiek nola egituratuko diren jasoko du ordenantza honek.

-Aurrekontu parte-hartzaileen garapena. Hasieran esan dugunaren bidetik, aurrekontuak dira Udal batentzat lan-tresnarik ezinbestekoena. Bertan erabakitzen da herriko ahalmen ekonomikoa nola partitu, beraz, justua da herritarrek ere horretan erabakitzekeo ahalmena edukitzea.

